

A2.2 MAILA

ENTZUMENAREN TRANSKRIPZIOA

Hemen dituzu kaleko inkesta batean hiru lagunek esandakoak. Galdera hauek egin zaizkie:

1. Kosmetiko asko kontsumitzen dugu?
2. Zenbat diru gastatzen duzu urtean kosmetikotan?
3. Zer jarri edo erabili Gabe ezin zara etxetik atera?

Nerea Galartza

Esataria. Zure ustez asko kontsumitzen dugu kosmetikotan?

Nerea Galartza. Ba nik esango nuke, hemen Euskal Herrian daudela igual muturreko joerak ezta?. Badago jendea pila bat kontsumitzen duena, nire ustez gehiegi, eta dago jendea batere ez duena kontsumitzen, batere esango nuke, ez duela kalera ateratzeko kremarik ere ematen aurpegian. Eta nik nire burua kokatuko nuke, pues erdian.

Esataria. Zenbat diru gastatzen duzu urtean kosmetikotan?

Nerea Galartza. Nik usted ut gutxi. Kosmetikotan sartzen baditugu ba ilerako produktuak eta aur...aurpegirako kremak noski, ba bueno, agian horiei bai ematen diet garrantzia baina ezer gutxi gehiago kontsumitzen dut, orduan ez nuke esango gehiegi kontsumitzen dudarik.

Esataria. Eta zer jarri edo erabili Gabe ezin zara etxetik atera?

Nerea Galartza. Hiru gauza. E... ez naiz inoiz etxetik ateratzen edo saiitzen naiz, e... krema hidratantea jarri Gabe, koloretea jarri Gabe eta rímel jarri Gabe, eta bueno begi zuloak tapatzeko ere bai.

Cristina Tapia

Esataria. Kosmetikotan asko kontsumitzen dugula iruditzen zaizu?

Cristina Tapia. Ez dakit, e... akaso azken urte honetan gehiago kontsumitzen dugula usted dut, batez ere gizonezkoak sartu dira industria honetan eta nik usted ut emakumeek ere gero eta gehiago kontsumitzen dugula.

Esataria. Zenbat diru gastatzen duzu artean gutxi gorabehera?

Cristina Tapia. Ezin nizuke zenbaki zehatz bate san, baina ehun euro artean? Gutxi gorabehera.

Esataria. Eta zer jarri edo erabili Gabe ezin zara etxetik atera?

Cristina Tapia. Krena hidratatzailea, errimela eta begiko marra. Hori Gabe ez naiz ateratzen, eta gero egun bereziren bat baldin bada, ba gauza gehiago.

Bortxa Encinas

Esataria. Kosmetikotan asko kontsumitzen dugu?

Bortxa Encinas. Nik usted ut bai, gaur egun gizartean asko, gero eta gehiago kontsumitzen dela.

Esataria. Zenbat diru gastatzen duzu artean kosmetikotan?

Bortxa Encinas. Usted ut gutxi gastatzen dudala, gehienbat garbitasuneko kontuetan eta halako produktuetan bai gastatzen dudala, baina, bestela ere, kosmetikoetan eta hola gutxi.

Esataria. Zer jarri edo erabili Gabe ezin zara etxetik atera?

Bortxa Encinas. Ba agian desodorantea, ba dutxatu ondoren bai desodorantea jartzen dudala, baina besterik gabe. Ez dut hola, holako erabilpen zorrotzik edo holako gauzeta.

A2.2 MAILA

ENTZUMENAREN ULERMENA

EGITEKOA: Entzun audioak eta markatu taulan esaldi bakoitza nork esan duen.

1. Urtean ehun euro gastatzen dut
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
2. Krena hidratatzailea, koloretea, errimela eta begi –zuloak tapatzeko produktua erabiltzen ditut
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
3. Gehienbat, garbitasuneko produktuetan gastatzen dut
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
4. Krena hidratatzailea, errimela eta begiko marra
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
5. Gero eta gehiago kontsumitzen da
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
6. Batzuek pila bat kontsumitzen dute, eta beste batzuek batere ez
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa
7. Dutzatu ondoren, desodorantea erabiltzen dut
 - Nerea
 - Cristina
 - Bortxa